

## BEZEROEKIN HARREMANAK

Landuko dugun atal honetan, enpresak merkatuko zenbait segmenturekin sortzen dituen harreman mota ezberdinak deskribatzen dira; hala nola, bezeroak nola erakarriko ditugun baita nola mantenduko ditugun ere.

Bezero berriak erakartzeko txartela pertsonala egiteko aukera du Canada S.A enpresak. Honi esker, bezeroen leialtasuna eskuratzen dugu.

Bezero horiek mantentzeko, bazkide txartela edukita,

deskontuak lortu edo promozio berezietan parte hartzeko aukera izango dute. Erosleak 4 produktu erositakoan, txartelaren bidez, hurrengo produktuan %50-ko deskontua izango du.



Enpresak telefonoa izango du eta adi egongo gara beti bezeroen deiei, arazoak, dudak edo eskaerak asetzeko, beti tratu onak emanda, erosotasuna eta gertutasuna eskainiz bezeroei. Bestalde, web orrian ere edozein zalantzaren aurrean, enpresak segituan argituko ditu eta lagungarriak diren azalpenak ematen saiatuko da.



Produktua itzuli nahi bada, ez da arazorik egongo. Aldaketa ala itzulera egiteko, [canada@gmail.com](mailto:canada@gmail.com) bidez enpresarekin kontaktatu beharko dute bezeroek. Hasiera batean denda fisikorik ez dagoenez, bezeroei etiketa bat iritsiko zaie haien gmail pertsonalera Correos bidez bidalketa egiteko. Horrela, produktua lantegira bidaliko dute zuzenean eta

itzulera ongi gauzatuko da.